

## Kostuak

- Finkoak:
  - Web-gunearen hostinga, hau da web-gunea sortzeko ordainduko dugun dirua
  - Lokala, bertan produzituko baititugu gure produktua.
  - Telefonoa, edonork deitzeko aukera izan dezan; bai erosteko, bai dudak argitzeko.
  - Produziorako makina
  - Mahaiak
  - Aulkiak
  - Ordenagailuak
  
- Aldakorrak:
  - Material biodegradagarriak, salmenta-bolumenaren arabera.
  - Kamiseten kostuak, hau ere salmenta-bolumenaren arabera.

Web gunea ordaintzea: 20 €

Lokala: 900€ hilabetero

Telefono finkoa: 13 € hilabetero

Produziorako makina: Bakoitzak 225€ kostatzen du eta hasiera batean bi erosi nahi ditugunez 500€ gastatuko genituzke.



<b>Hasierako Inbertsioa Eta Beharrezko Finantzaketa</b>				
<b>Kontzeptua</b>	<b>1 Hilabetea</b>	<b>2 Hilabetea</b>	<b>3 Hilabetea</b>	<b>Kantitate Totala</b>
Lokala	900,00 €	900,00 €	900,00 €	2.700,00 €
Ordenagailuak	748,00 €	0,00 €	0,00 €	748,00 €
Web gunea	20,00 €	20,00 €	20,00 €	60,00 €
Produkzio makina	550,00 €	0,00 €	0,00 €	550,00 €
Interneta eta mugikorrak	540,00 €	40,00 €	40,00 €	620,00 €
Mahaia 4x	2.000,00 €	0,00 €	0,00 €	2.000,00 €
Aulkiak 4x	400,00 €	0,00 €	0,00 €	400,00 €
Lehengaiak	6.950,00 €	0,00 €	0,00 €	6.950,00 €
Kamisetak egitea 100x	1.000,00 €	0,00 €	0,00 €	1.000,00 €
Beste ekoizpen gastu batzuk	200,00 €	200,00 €	200,00 €	600,00 €
<b>TOTALA</b>	<b>13.308,00 €</b>	<b>1.160,00 €</b>	<b>1.160,00 €</b>	<b>15.628,00 €</b>

Hau izango da gure hasierako inbertsioa:

Lokalean hilabetero 900€ gastatuko ditugu. Lau enpresari garenez lau ordenagailu beharko ditugu, horietako bi etxetik eramango ditugu eta beste bi erosi egingo ditugu (HP EliteDesk 800G1), bakoitza 374€-etara. Ondoren, hilbate bakoitzean web-gunean 20€ gastatuko ditugu.

Bi produkzio makina (3D Printer) erosiko ditugu bakoitza 225€-tara (Creality Ender 3 V2). Mugikor finko baten linea eta internetarengatik 540€ ordainduko ditugu lehenengo hilabetean baina gainerakoetan interneta bakarrik ordainduko dugu(40€).

Horretaz gain, lau langile garenez, lau mahai (2.000€) eta lau aulki (400€) erosiko ditugu. Hasiera batean, 100 basoak eta 225 tapak egiteko (lehengaiak) plastiko biodegradablea erabiliko dugu (6950€).

Azkenik, kamisetak eginak erosiko ditugu eta 100 kamiseta 1.000€-tara erosiko ditugu. Guztira hasierako inbertsioa eta beharrezko finantzaketa 15.038€ da. Diru kopuru hori lortzeko bankuari mailegua eskatuko diogu.